



Arartekoaren 2023R-384-23 Ebazpena, 2023ko uztailaren 10ekoa. Honen bidez, Usurbilgo Udalari gomendatu zaio itzul diezazkiola kexagileari Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamenduaren 121. artikuluan ezartzen diren baldintzei jarraikiz justifikatu ezin ahal izan diren diru-bilketa prozedurako gastuak.

Aurrekariak

1. Herritar batek Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen eta zalantzan jarri zuen Usurbilgo Udalak egindako jarduketara, izan ere, 12,41 € erreklamatu zizkion premiamendu-prozedurako kostuengatik, baina ez zitzaion zehaztu zenbateko horren jatorri zehatza.

Aitortu zuen 2022ko abenduaren 5ean hondakinen tasaren (2022ko 3. hiruilekoari zegokiona) ordainagiriaren banku-transferentzia bidez ordainketa agindu zuela; hau da, ordaintzeko borondatezko epea iraungi ostean. Hain zuzen ere, zehaztu zuenez, 4 egun igaro zirenean aipaturiko epea amaitu zenetik, akatsaz ohartu zen eta transferentzia egin zuen. Ordainagiriaren zerga-kuota, borondatezko epean, 12,29 eurokoa zen.

Kexagilearen arabera, egun batzuk beranduago, 2023ko urtarrilaren 16an, premiamendu-probidentzia bat jakinarazi zitzaion bere etxebizitzan, eta horren bidez 25,31 euro ordaintzeko eskatu zitzaion, honela banakatuta: 12,29 € (zorria borondatezko epean) 0,61 € (premiamendu-errekargua) eta 12,41 € (kostuengatik).

Aitortu zuenez, diru-bilketa prozedurako kostuengatik 12,41 euro ordaintzea neurritz kanpoko zela iruditzen zitzaionez, zalantzan jarri zuen horren likidazioa, izan ere, zenbateko horrek hondakinak biltzeko zerbitzua emateagatik ordaindu beharreko zerga-kuota ere gainditzen zuen.

Adierazi zuenez, bere eskaera ezetsi egin zen, Usurbilgo Udaleko Ogasuneko zinegotzi ordezkariaren dekretu bidez; bertan, zehaztaperen gehiagorik gabe, honako hau baieztatu zen: *"Kostuen kontzeptupean inprenta-gastuak eta jakinarazpen informatizatutako gastuak kobratu zaizkio"*

2. Harturiko ebazpenak ez zuen uzten zehaztea eta kontrastatzea nahitaezko diru-bilketa prozedurako zein gastu zehatzetan huts egin zuen Usurbilgo Udalak; hori dela eta, Ararteko erakundea harremanetan jarri zen toki-erakunde horrekin eta eskatu zion zehaztu eta banakatu zezala diru-bilketa prozeduran baimendutako zein gastu zehatzei zegokien 12,41 euroko likidazio hori.

Era berean, erakunde honek Usurbilgo Udalari egindako informazio-eskaeran aurreratu zuen inprenta-gastuen eta informatizatutako jakinarazpen-gastuen





aipamena ez zela argigarria, izan ere, espediente elektronikoa ezartzeak beharrezko baliabide material eta teknikoek hornitzera behartzen zuen administrazio hori, administrazio-prozeduretan interesa duten pertsona guztiek administrazio horrekin harremanak elektronikoki izateko duten eskubidea bermatze aldera.

Horren haritik, zehaztu zen kostuak, hala alegatuak —inprenta-gastu eta informatizatutako jakinarazpen-kostu gisa—, antza, ez zetozeela bat premiamendu-probidentzia baten izapidetzearekin loturiko kostu osagarri edo espezifikoekin; hala ere, premiamendu-probidentzia zehatza zergapekoaren eskura jarri zen administrazio horren egoitza elektronikoa. Kasu honetan, premiamendu-probidentzia zehatza posta bidez jakinarazi zen.

Azkenik, erakunde honek adierazi zuen administrazioaren organoen eta unitateen gastu arruntak ez zirela diru-bilketa prozeduraren ondoriozko berariazko gastuak.

3. Duela gutxi, Usurbilgo Udalak bere erantzuna bidali du, zeinaren bidez, laburbilduta, azpimarratu baita epez kanpo ordaintzen bada, epe exekutiboan diru-bilketa prozedura ireki behar dela.

Premiamendu-probidentzia hau jakinarazteko jarduketari dagokionez adierazi da posta ziurtatu bidez gauzatu zela 2023ko urtarrilaren 12an; hala ere, urtarrilaren 10ean, interesdunaren eskura zegoen udal horretako egoitza elektronikoa.

Era berean, aitortu da kexagileak egin zuen diru-bilketa prozedurako kostuak baliogabetzeko eskaera ezetsi zela, kontzeptu horren pean inprenta-gastuak eta informatizatutako jakinarazpen gastuak kobratu zirelako.

Era berean, bere txostenean, toki-erakunde horrek gaineratu du, Zergei buruzko 2/2005 Foru Arauaren 165.4 artikulua arabera, epe exekutiboa hasteak, besteak beste, premiamendu-prozedurako kostuen eskakizuna zehazten duela.

Zehazkiago, zehaztu du jasandako gastuak eta hornidurak honako hauek izan direla:

“Sociedad Estatal Correos y Telégrafos S.A. gutunen banaketa; eta Sociedad Foral de Servicios Informáticos (IZPE) euskarri informatiko bere osotasunean eta gutun azalena inprimaketa.

Banaketaren gastuan kontzeptu hauek jasaten ditu udalak:

*Herri mailan jakinarazpen Berezia
Entregaren kudeaketa Berezia
inormazioaren itzulera Berezia*





EEPP entregatze elektronikoaren proba

Euskarri informatiko eta gutun azalen inprimaketan kontzeptu hauek jasaten ditu udalak:

*Gutunazala
Gutunazalean sartzea
Teleprozesua
Hitzarmena (Programa...)"*

Gogoetak

1. Epe exekutiboa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 1 artikulua arabera, une honetan hasten da: *"Zerga Administrazioak likidatutako zorrak direnean, (...) haiek ordaintzeko (...) epea amaitu ondorengo egunean"*. Artikulu horren 3. paragrafoan zehazten denez, epe exekutiboa hasi ondoren, Zerga Administrazioak premiamendu-prozeduraren bidez likidatutako edo autolikidatutako zorrak bilduko ditu ordaintzera behartuta dagoenaren ondarearen gainean. 165. artikulua horretako 4. paragrafoan honako hau ezartzen da: *"Epe exekutiboa hasteak berarekin ekarriko du foro arau honek 26. Eta 28. artikuluan jasotakoaren arabera exijitzea berandutza interesak eta epe exekutiboko errekarquak eta, bidezkoa denean, premiamenduzko prozeduraren kostuak."*

Zehaztu beharra dago kexagileak bere kexan erreklamaturiko kostuen zenbatekoa bakarrik jartzen duela zalantzan, bai eta kostu horien indibidualizazio eta dokumentazio falta ere.

2. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua onartzen duen abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuan xehetasun osoz jasotzen dira epe exekutiboan kobratzeko espediente batean sar daitezkeen kostuak, eta horiek nola ezarri eta kobratu behar diren ezartzen da.

Arau horrek ez du jasotzen zerga-arloko diru-bilketa prozedurako kostuen definizio bat; arauak premiamendu-prozedurako kostutzat jotzen dituen gastuen zerrenda bat jasotzen du, modu itxian.

Zehazki, 119. artikuluan, premiamendu-prozedurako kostuak jorratzen dira, honela:





“119. artikulua. Prozeduraren kostuak.

1. Premiamenduzko prozeduraren kostutzat prozedura horretan sortzen diren gastuak hartzen dira. Ordaintzera behartutakoari exijituko zaizkio kostu horiek.

2. Prozeduraren kostuen kontzeptupean honako gastuok sartzen dira:

a) Bahitutako ondasunak baloratu, mugarritu eta besterentzeko jarduketetan esku hartzen duten Gipuzkoako Foru Aldundiaz kanpoko enpresa edo profesionalen ordainsariak.

b) Erregistratzaileen ordainsariak eta erregistro publikoetan egindako jarduketengatik ordaindu beharreko gainerako gastuak.

c) Bahitutako ondasunen gordailu eta administrazioagatik ordaindu behar direnak.

d) Erregelamendu honen 78.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, lehentasunezko hartzekodunei egindako ordainketak.

e) Gipuzkoako Foru Aldundiak negozio-alokairu modura ordaindutako zenbatekoak, negozio-lokalaren errentamendu kontratua lagatzeko eskubidea bahitua izan denean.

f) Zergabilketa organoak baimendu ondoren, exekuzioak berak ezinbestean exijitu eta beharrezkoak dituen gainerako gastuak.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiaren organoen gastu arruntak ezin izango dira kostu modura sartu.”

Bestalde, 121. artikuluan kostuen zehaztapena eta kobrantza zehazten dira, honela:

“121. artikulua. Kostuak zehaztu eta kobratzea.

1. Premiamenduzko prozeduran sortutako kostuak zehaztu ondoren premiamenduzko espedientean jasoko dira, eta kobratzerakoan lehentasuna izango dute esandako espedientean metatutako gainerako zenbatekoen gainean.



2. Zergapeko bati baino gehiagori eragin dioten kostuak bakoitzari banan-banan egotzi ezin zaizkionean, haien artean banatuko dira beren zorren proportzioan.

3. Ordaintzera behartutakoari ezin izango zaio inolako kostu partidarik exijitu, baldin eta partida hori frogatzen duten ordainagiriak, fakturak edo ordainsarien minutak espedientean ageri ez badira.

4. Ordaintzera behartutakoari ordainketaren frogagiria ematen zaionean, frogagirian bertan edo bereiztuta, bere konturako kostuen zenbatekoa jasoko da, kostuak zein kontzepturi dagozkion ere zehaztuta.

5. Ordaindutako kostuak itzuliko dira horien arrazoi izan den likidazioa edo premiamenduzko prozedura baliogabetzen direnean.

6. Premiamenduzko prozedura administratibo bat amaitu eta likidazioa egin ondoren, lortutako kopuruek sortutako kostuen zenbatekoa estaltzen ez badute, estali gabeko zatia Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontura joango da.”

Horren ondorioz, premiamendu-prozedurako kostuak, doktrinak definitu duenaren arabera, honako hauek dira: *"aquella parte de los gastos del proceso de ejecución, que tienen a éste como causa inmediata o directa de producción, por lo que deben ser satisfechas por el deudor apremiado. Sólo pueden incluirse como costas aquellos gastos previamente determinados en el Reglamento, existiendo tipicidad al respecto"*

Hau da, premiamendu-prozedurako kostuek honako ezaugarri hauek dituzte:

- Kostuen jatorria premiamendu-prozeduraren garapenean dago.
- Kontzeptuen arabera kuantifika daitezkeen zenbatekoak izan behar dira eta behar bezala justifikatuta egon behar dira espedientean.
- Kostuen zenbatekoa premiamendu-espediente bakoitzeko behin betiko likidazioan sartu behar da; bestela, ezingo lirateke exijitu.
- Eragin den pertsonari egotzi behar zaizkio.
- Hirugarrenei zor zaizkien zenbatekoak dira.
- Eta, azkenik, premiatutako zordunak ordaindu beharreko kostuen kontzeptutik baztertuta geratzen direlako administrazioaren organoen gastu arruntak.

3. Pentsa daiteke Diru-bilketa Erregelamenduaren 119. artikulua f) idatz-zatian jasotzen den aipamenean *"exekuzioak berak ezinbestean exijitu eta beharrezkoak dituen gainerako gastuak"*) klausula ireki bat txertatzen dela, zeinak aukera-sorta handi bat eskaintzen baitio zerga-administrazioari. Hala ere, hori ez da horrela, izan ere, aipaturiko gastuak *"zergabilketa organoak baimendu ondoren"* ezarri behar dira



eta, gainera, inola ere ezin dira kostu gisa sartu administrazio-organoaren gastu arruntak. (Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamenduaren 119.3 art.)

Horri gaineratu behar zaio epe exekutiboan kobratzeko espediente batean sar daitezkeen kostu bakarrak fakturen edo ordainsarien minuten bidez dokumentatu daitezkeenak direla. *“Ordaintzera behartutakoari ezin izango zaio inolako kostu partidarik exijitu, baldin eta partida hori frogatzen duten ordainagiriak, fakturak edo ordainsarien minutak espedientean ageri ez badira”* eta banakatuta egon behar dira. *“Ordaintzera behartutakoari ordainketaren frogagiria ematen zaionean, frogagirian bertan edo bereiztuta, bere konturako kostuen zenbatekoa jasoko da, kostuak zein kontzepturi dagozkion ere zehaztuta.”* (Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamenduaren 121.3 eta 4. art.)

Hau da, Diru-bilketa Erregelamenduan ez da onartzen premiatutako zordunari behar bezala indibidualizatuta eta dokumentu bidez justifikatuta ez dauden diru-bilketa prozedurako gastuak kobratzea.

Kasu honetan, Arartekoak ikusi du kexagileari igorritako zenbatekoak ez dituela ezaugarri horiek. Kexagileari, inolako euskarri dokumentalik gabe eta inolako banakapen indibidualizaturik gabe, antza, oroharreko 12,41 euroko zenbatekoa igorri zaio. Ez du ezer aurreratzen toki-erakunde horrek bere txostenean jasotako gastuen eta horniduren zerrendak, izan ere, ez du faktura edo minuta bidezko inolako babes dokumentalik eta bertan ez da zehazten premiamendu-prozedura jakin honetatik eratorritako kostuen zenbatekoa eta ez dira identifikatzen eragindako kontzeptuak.

Horren ondorioz, Usurbilgo Udalak beharrezko neurriak hartu beharko zituzkeen kobratzeko nahitaezko prozeduretako gastuak indibidualizatu ahal izateko, aipaturiko gastuen ziurtagiriak espediente exekutiboetan eragindako zergapekoei entregatu ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, Arartekoak gomendio hau egiten du, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Usurbilgo Udalari itzul diezazkiola kexagileari Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamenduaren 121. artikuluan ezartzen diren baldintzei jarraikiz justifikatu ezin ahal izan diren diru-bilketa prozedurako gastuak.

